



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2017ko bigarren hiruhilekoa




LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera.....	3
Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak.....	7
Euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Indizeak.....	19
Eranskina - Metodologia	23
Fitxa Teknikoa.....	26

KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZAREN BILAKAERA


- EAEko familien konfiantza balio positibotan sartu da
- eta Espainiako eta Europako familien balioak gainditu ditu
- Frantzian eta Erresuma Batuan, aldiz, iritzi ezkorra da nagusi



1 EAEko familien konfiantza balio positibotan sartu da

2017ko bigarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza-indizea, 2014. urtetik lehen aldiz, balio positibotan sartu da. Zehatzago esanda, KKla 5koa da; ondorioz, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-3), 8 puntu igo da.


Hitz gutxitan esanda, oso poliki bada ere, 2015. eta 2016. urteetan EAEko familien konfiantza suspertzen joan da eta 2014ko ezkortasunetik aldendu da (krisi-egoerak eragin zuen hori). 2017ko lehen bi hiruhilekoetan EAEko familien konfiantza nabarmen suspertu dela ikus daiteke bigarren hiruhilekoan izandako emaitza onari esker.



2 | eta Espainiako eta Europako familien balioak gainditu ditu

2017ko bigarren hiruhilekoan euskal familien konfiantzan izandako hobekuntza esanguratsu hori (5, ehuneko +8 puntu) Estatuko familien artean ere ikus daiteke (2, ehuneko +5 puntu). Ondorioz, bi kasuetan, EAEko eta Estatuko familien artean, eta 2014. urtetik lehen aldiz, kontsumitzailearen konfiantza-indizea balio positibotan kokatu da.

EB-28 osoan, Kklak pixkanaka suspertzeko joerari eutsi dio, baina oraindik ere ezkortasun txikiko balioetan kokatuta dago (-3).




* EB-28ren eta Espainiaren 2017ko II hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; apirilko eta maiatzeko datuen batez bestekoari dagozkie.

3 | Frantzia eta Erresuma Batuan, aldiz, iritzi ezkorra da nagusi

Frantziako familien artean, konfiantza puntu bat bakarrik hobetu da 2017ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta oraindik ere balio ezkorretan geldituta dago. Maiatzean egin dituzte hauteskundeak eta, ondorioz, oraindik ere goiz da gobernu berriak (eta hark planteatzen dituen neurriek) 2017ko bigarren erdian familien iritzia hobetzea lortuko duen jakiteko.

Erresuma Batuan, aldiz, hauteskundeetako eztabaida Brexitaren negoziazioan eta gero eta handiagoa den mehatxu estremistan oinarritu da eta, testuinguru horren baitan, familien konfiantzak ez du aldaketarik izan aurreko hiruhilekoekin (-6) alderatuta, eta oraindik ere hobekuntza-joera berreskuratu ezinean dago. Azkenik, Alemania baikortasun arineko (3) balioetan sartu da, 2016. urtean erakutsitako gelditasuna atzean utzita.

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batuen eta Alemaniaren 2017ko II. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; apirilko eta maiatzeko datuen batez bestekoari dagozkie..

EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZAREN OSAGAIK

- EAEko familiek ekonomia orokorrean hobekuntza argia izango dela aurreratu dute
- enpleguaren inguruko igurikimen baikorra sendotu egin da
- hori guztia ez da familiako ekonomiara bideratu, oraindik balio negatibotan baitago
- eta horrek aurrezki-igurikimenak susperraldirik ez izatea baldintzatu du
- EAEko familien konfiantza baikortasunetik gertu dago


4 EAEko familiek ekonomia orokorrean hobekuntza argia izango dela aurreratu dute

Ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruko igurikimenen indizeak 15 puntu egin du gora eta, 2014. urtetik lehen aldiz, argi eta garbi positiboa den ikuspegian (12) kokatu da.

Emaitza hori hurrengo 12 hilabeteotan egoera ekonomikoa "zertxobait hobea" izango dela uste duten familien ehunekoak izan duen igoerak eragin du (% 22tik % 33ra igo da tasa). "Zertxobait okerragoa" izango dela uste dutenen kolektiboa, aldiz, gutxitu egin da (% 22tik % 10era).

Ondorioz, ekonomia orokorraren inguruan euskal familien konfiantza-indizean izandako hobekuntzak agerian utzi du gero eta familia gehiagok uste duela epe ertainerako ikuspegiak hobetu egingo direla gaur egungo egoerarekin alderatuta.

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak




5 | enpleguaren inguruko igurikimen baikorra sendotu egin da

Hurrengo 12 hilabeteotarako enpleguaren bilakaeraren inguruko igurikimenek 2017ko lehen hiruhilekoarekiko hobekuntza argia erakusten dute eta 23 puntukoa da balioa (ehuneko +13 puntu).

Grafikoan ikus daitekeenez, emaitza hori da 2014. urtearen hasieratik izandako balio altuena (alde nabarmenarekin). Dena den, adierazle hori balio positibotan dago 2015eko bigarren hiruhilekotik.

Joera hori bat dator lan-merkatuak 2017ko maiatzean izandako datu orokorrekin. Izan ere, 2010eko urtarriletik izandako langabezia-balio txikiena (134.236 pertsona) eta 2010eko abendutik Gizarte Segurantzako afiliazioko datu onena (931.794 pertsona) erakusten ditu.




6 | hori guztia ez da familiako ekonomiara bideratu, oraindik balio negatibotan baitago

Familiako egoera ekonomikoaren igurikimeneen indizeak 5 puntu egin du gora 2017ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta eta -3 balioan kokatu da. Beste behin, balio neutroetara gerturatu da, baina oraindik ere ez du iritzi ezkorren eremutik ateratzea lortu.

Adierazlea, nolabait, geldi dagoela esan dezakegu; izan ere, 2016ko bigarren erdian, EAEko familiek egindako balorazioa 2017ko lehen erdialdean aipatutakoa baino baikorragoa izan zen (-3koa eta -5koa hurrenez hurren, batez beste).

Etxeko ekonomiaren egoerari buruzko igurikimenak




7 | eta horrek aurrezki-igurikimenak susperraldirik ez izatea baldintzatu du

EAEko familien aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenen indizea oraindik ere ezkortasun-balioetan kokatuta dago eta hirugarren hiruhilekoz jarraian, balio berbera erakutsi du (-12).

Kasu horretan, familien egoera ekonomikoaren inguruko igurikimenek izandako geldialdiak EAEko familien konfiantza erabat suspertzea oztopatzen duela esan dezakegu.

Hau da, hobekuntza hori enpleguaren eta ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruko igurikimenak eragin du. Dena den, familiako ekonomia suspertzeko nahikoa direla dirudi, baina ez du aurrezki-igurikimena berreskuratu ahal izateko behar adinako soberakin sortzen.



8 | EAEko familien konfiantza baikortasunetik gertu dago

2017ko bigarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza-indizea 5 puntukoa izan da; hau da, 2014. urtearen hasieratik izandako balio altuena, eta lehen aldiz balio positibotan dago.

EAEko familien konfiantzan izandako hobekuntza argi horren oinarriak ekonomia orokorraren egoeraren inguruko igurikimene bilakaera (12, ehuneko +15 puntu) eta enpleguaren bilakaera (23, ehuneko +13 puntu) dira. Horiei, gainera, familiako egoera ekonomikoaren neutraltasuna gehitu behar zaie (-3, ehuneko +5 puntu). Aldiz, aurrezteko gaitasunaren inguruko igurikimena oraindik ere geldi dago eta balorazio negatiboan dago sartuta (-12, ehuneko 0 puntu).

2017ko bigarren hiruhilekoko emaitzak ikusita, urtearen bigarren erdian KKIak izango duen bilakaeraren inguruan baikorrak gara. Izan ere, enpleguaren eta egoera ekonomiko orokorraren inguruko igurikimenak baieztatzen diren eta familiako ekonomiaren inguruko igurikimene tara bideratzen diren heinean, aurrezkiaren adierazlea posizio ezkorretatik ateratzen joango litzateke.


Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE

Indizea	<u>2014</u>	<u>2015</u>	<u>2016</u>	<u>III H-16</u>	<u>IV H-16</u>	<u>I H-17</u>	<u>II H-17</u>
Familien konfiantza	-20	-6	-5	-5	-3	-3	5
Ekonomia orokorra	-21	-4	-7	-7	-5	-3	12
Etxeko ekonomia	-15	-9	-5	-4	-3	-8	-3
Langabeziaren bilakaera	-18	3	9	3	9	10	23
Aurrezteko gaitasuna	-23	-16	-12	-10	-12	-12	-12



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- familien heren batek uste du prezioak bizkorrago igoko direla
- erosteko unearen balorazioari dagokionez, atzerakada txikia
- “erosketa handiak” egitearen inguruko igurikimena ez da horren negatiboa
- oso arin igo da etxebizitza eta autoa erosteko asmoa
- prezioak igo arren, erosketa handietarako eta inbertsiorako asmoa suspertu egin da




9 | familien heren batek uste du prezioak bizkorrago igoko direla

Hurrengo 12 hilabeteotarako prezioen bilakaeraren inguruko igurikimena negatiboa da (-18), baina aurreko hiruhilekoko baino neurri txikiagoan (-29). Beste nolabait esanda, familiek 2017an prezioen igoera handiagoa gertatuko dela aurrez ikusi dute (aurkako iritzia zuten 2015ean eta 2016an). Hala eta guztiz ere, ez dute tentsio inflazionistarik aurreratu¹.

Hala, familien erdiak uste du prezioek azken 12 hilabeteotan izan duten antzeko igoera izango dutela (% 51, ehuneko hori nabarmen handitu da azken hiruhilekoan), baina familia gutxiagok uste du prezioek igoera handiagoa izango dutela (% 45etik % 34ra) eta mantendu egin da polikiago igoko direla uste dutenen ehunekoa (% 15).

Zure ustez, nola haziko dira¹ prezioak hurrengo 12 hiletan? (pertsonek %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko

² KPI orokorraren eta azpiko KPIaren urtetik urteko igoerak % 2,9koak eta % 1,2koak izan dira hurrenez hurren. 2017ko apirila, energia-produktuak eta prestatu gabekoak.


10 | erosteko unearen balorazioari dagokionez, atzerakada txikia

Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikuluak erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak,..)?

Erosteke unearen inguruko balorazioak atzera egin du 2017ko bigarren hiruhilekoan, eta indize agregatua berriro ere balio negatibotan dago (-3, ehuneko -3 puntu).

Emaitza horrek agerian uzten du familien iritzia ia ez duela aldaketarik izan azken hiruhilekoan: hiru familiatik bik uste dute etxerako artikuluak erosteko oraingo unea ez duela azken 12 hilabeteekiko ezberdintasunik (% 65, ehuneko +1 puntu) eta bi puntu gutxitu da erosteko unea dela uste dutenen ehunekoa (% 16). Aldiz, puntu bat egin du gora unea txarra dela uste dutenen ehunekoa (% 19).

Erosteke unearen balorazioa¹
(pertsonek %a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


11 “erosketa handiak” egitearen inguruko igurikimena ez da horren negatiboa

Nolakoak uste duzu izango direla etxeko gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

2017ko bigarren hiruhilekoan, erosketa handiak egitearen inguruko igurikimenen indizea oraindik ere negatiboa da familien artean (-8), baina, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-12), zertxobait hobetu da.

Etixerako gastuak edo erosketak zertxobait edo askoz ere handiagoak (% 16, ehuneko +1) izango direla aipatu duten familien ehunekoa erakusten du datu horrek. Aldiz, erosketei eutsiko dietela dioten talde nagusia egonkortu egin da (% 58, ehuneko +2). Erosketak zertxobait (% 20) edo askoz ere txikiagoak (% 6) izango direla uste duten familiek izandako jaitsera arina konpentsatu dute bi talde horiek.

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan ¹
(pertsonek %-a)




¹ Azken hamabi hilabeteekiko

12 oso arin igo da etxebizitza eta autoa erosteko asmoa

2017ko bigarren hiruhilekoan, euskal familien % 3,2k datorren urtean etxebizitza erosteko nolabaiteko asmoa adierazi du. Azken hiruhilekoan ehuneko horrek lau hamarren behera egin duen arren, dagoeneko 2016ko eta 2015eko urteko batez besteko datua baino handiagoa da (% 1,8koa izan zen bi kasuetan).

Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonek %a)



Hurrengo 12 hilabeteotan autoa erosteko asmoak ia puntu bat egin du gora eta familien % 6,8k aipatu du aukera hori: % 4,9k asmo argia duela adierazi du eta gainerako % 1,9k horren segurua ez den erosketa-asmoa aipatu du.

Autoa erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonek %a)



13 | prezioak igo arren, erosketa handietarako eta inbertsiorako asmoa suspertu egin da




2017ko bigarren hiruhilekoan, euskal familien erosketako eta inbertsioko erabakiekin eta prezioekin lotutako indizeen balantze bateratuak agerian utzi duenez, konfiantzak izandako susperraldia erabaki horietara bideratzen ari da oso poliki bada ere.

Azken bi urteotan, euskal familiek inflazio baxuko joera izango dela aurrez ikusi izan dute, baina 2017ko bi hiruhilekoetan, joera hori aldatu eta prezioetan igoera handiagoa gertatuko dela aurreratu dute.

Bestalde, familien ustez, erosketa-unea oraindik ere balio negatibotan dago, baina balio nuluko atalera gerturatzeko ari da. Joera positiboa den arren, ez du erosketa-une horren inguruko hobekuntza eragingarririk (positiboa) erakusten. Hori guztia dela eta, erosketako igurikimena oraindik ere balio negatibotan dago, baina gero eta neurri txikiagoan.

Oro har, enpleguaren eta egoera ekonomikoaren (familiako diru-sarrerak) hobekuntza baieztatzen den neurrian, horrek guztiak erosketa handiak egiteko erabakian igoera izatea eragingo du.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk


	<u>2015</u>	<u>2016</u>	<u>III H-16</u>	<u>IV H-16</u>	<u>I H-17</u>	<u>II H-17</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	6	14	15	6	-29	-18	+11	
Erosteke unearen balorazioa	-19	-8	-6	-9	0	-3	-3	
Erosketak egiteko igurikimenak	-12	-10	-6	-12	-12	-8	+4	

ERANSKINA – INDIZEAK

Laburpena: familien konfiantzaren indizea

Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

Beste adierazle batzuk



I | Laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2015	2016	III H-16	IV H-16	I H-17	II H-17	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-6	-5	-5	-3	-3	5	▲
• Estatua*	0	-4	-6	-4	-3	2	▶
• EB*	-4	-6	-7	-6	-5	-3	▶
○ Frantzia*	-17	-14	-14	-13	-9	-8	▶
○ Alemania*	0	-4	-3	-2	0	3	▲
○ Erresuma Batua*	3	-3	-6	-5	-5	-6	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	-4	-7	-7	-5	-3	12	▲
• Etxeko ekonomia	-7	-5	-4	-3	-8	-3	▲
• Langabezia	3	4	-2	9	10	23	▲
• Aurrezkia	-16	-12	-10	-12	-12	-12	▶
Kontsumoari buruzko igurikemenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	6	14	15	6	-29	-18	▲
• Erosteke unearen balioztapena	-19	-8	-6	-9	0	-3	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	-12	-10	-6	-12	-12	-8	▲
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	1,8	1,8	1,4	2,0	3,6	3,2	▶
• Autoa	3,5	5,2	5,1	5,4	5,6	6,8	▶

↔ (± 2 puntuko aldea)

* II hiruhileko datuak apirila-maiatzeko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

	2015	2016	III H-16	IV H-16	I H-17	II H-17	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-6	-5	-5	-3	-2	5	▲
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	-4	-3	-4	-6	2	9	▲
• 40 eta 54 urte bitartean	-4	-1	-2	2	-1	5	▲
• 55 eta 64 urte bitartean	-9	-6	-5	-3	-6	4	▲
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-12	-14	-6	-11	2	▲
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa)	-1	1	-2	2	2	9	▲
• Langabea	-19	-18	-16	-11	-9	-1	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea, ..)	-8	-9	-8	-6	-9	2	▲
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-21	-21	-22	-15	-18	-8	▲
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-3	-4	-5	-2	0	4	▲
• 2.800 €-tik gorakoa	9	7	8	8	12	20	▲

⇔ (± 2 puntuko aldea)

III Beste adierazle batzuk

	II H – 16	III H – 16	IV H – 16	I H – 17	II H – 17 _(p)	(azkena)
BPG	3,2	3,0	2,9	2,8	--	I hir.
Familien kontsumoa	3,4	3,1	2,9	3,0	--	I hir.
Afiliazioa	1,1	-0,5	1,8	-0,4	1,1	Maiatza
Erregistratutako langabezia	-3,9	-3,7	-3,2	0,3	-2,3	Maiatza
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,3	0,0	-0,1	0,2	0,6	I hir.
Etxebizitzen salerosketa	4,2	-15,8	-9,0	34,3	--	I hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	14,6	-14,9	12,0	-7,0	4,1	Maiatza

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo biko) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA - METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritzia berri emateko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea **pertsonen iritziarekin osatzen da**. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobetorainoko bitartean) sailkatzen da.

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 807 laguni egin zaie.
- Maiatzaren 15etik 26ra (2017ko II. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm



LABORAL
kutxa